



LABen emaitzak hauteskunde sindikaletan

2019ko urtarrilaren 24an

Hauteskunde sindikalen epealdi trinkoan bete-betean murgilduta gauden honetan, LABetik iragarpen garrantzitsua dugu egiteko: **JARRITAKO HELBURUAK BETE DITUGU** jada.

Euskal Autonomia Erkidegoan bigarren, maximo historikoa lortuta

Gure **maximo historikoa lortu dugu 2018an eta EAEko 2. sindikatu** gisa egonkortuta ixten dugu urtea.


Azken epealdi trinkoko datuek, gaur gaurkoz eskura ditugunek, erakusten dute LABek bere goranzko joera mantentzen duela. 2014an %18,34ko ordezkari zatia izatetik 2018an %19,1eko ordezkari zatia izatera pasatu gara EAEn.

Epealdiz epealdi izaniko eboluzioa aztertzeko 1994raino goaz, 94an EAEn eta 95ean Nafarroan, hauteskunde sindikalen prozesuak arautu zireneko urteetara.

1994-2018 urteen artean LAB urtez urte igotzen joan da, EAEn gehien igo den sindikatua gara, 4,21 puntuko igoerarekin.

Sindikatu nagusien ordezkari zatien bilakaera EAEn 1994-2018 (%)

Urtea	ELA	UGT	CCOO	LAB	BESTEAK
1994	40,14	17,17	16,26	14,89	11,54
1998	40,35	15,92	17,42	15,47	10,83
2002	41,35	14,17	19,06	16,28	10,13
2006	40,7	13,01	19,89	16,75	9,65
2010	40,33	13,02	20,02	16,25	10,38
2014	39,88	11,69	19,23	18,34	10,86
2018	41,04	10,68	18,58	19,1	10,6
2014-2018 aldea	1,16	-1,01	-0,65	0,76	-0,26
1994-2018 aldea	0,9	-6,49	2,32	4,21	-0,94




Nafarroan ere maximo historikotan, %16ko langaz goitik, gehien igotzen den sindikatua LAB

1994tik 2018ra beti gorantz egiten duen sindikatua da LAB, bilakaera honetan 5,33 puntu igoz.

Epealdi trinko honetan, 2014tik 2018ra LABek du igoyerari handiena, 2,5koa.

Sindikatu nagusien ordezkartzaren bilakaera Nafarroan 1994-2008 (%)

Urtea	UGT	CCOO	ELA	LAB	BESTEAK
1994	36,33	19,04	17,04	10,89	16,69
1998	31,40	21,83	21,40	11,44	13,93
2002	31,97	24,05	20,37	11,94	11,67
2006	30,82	24,43	21,48	12,28	10,99
2010	30,65	25,29	21,10	12,55	10,40
2014	27,63	24,70	21,53	13,72	12,42
2018	25,20	24,01	22,71	16,22	11,86
2014-2018 aldea	-2,43	-0,70	1,18	2,50	-0,56
1994-2018 aldea	-11,13	4,96	5,67	5,33	-4,83



Hego Euskal Herrian bigarren sindikatutik gero eta hurbilago


LAB 3. indarra da Hego Euskal Herrian, %18,35eko ordezkartzarekin eta bigarren sindikatutik (CCOO) 1,64 puntura.

1994tik hona (4.36 puntu) zein azken epealdi trinko honetan (1,22 puntu) gehien igotzen den sindikatua gara.

Bilakaera kontuta izanda, 2019 amaieran Hego Euskal Herrian ere 2. indarra izatea da LABen anbizioa.

Sindikatu nagusien ordezkartzaren bilakaera Hego Euskal Herrian 1994-2018 (%)


Urtea	ELA	UGT	CCOO	LAB	BESTEAK
1994	34,94	21,48	16,89	13,99	12,69
1998	36,21	19,30	18,39	14,59	11,51
2002	36,25	18,50	20,27	15,23	9,75
2006	35,98	17,38	21,00	15,65	9,98
2010	35,53	17,43	21,33	15,32	10,38
2014	35,08	15,86	20,66	17,13	11,27
2018	36,29	14,45	19,99	18,35	10,93
2014-2018 aldea	1,21	-1,42	-0,67	1,22	-0,35
1994-2018 aldea	1,34	-7,04	-3,10	4,36	-1,76



Parekidetasunaren bidean aurrera doa LAB

Sindikatu parekidea izateko erronkan ere aurrera urratsak lortu ditugu. 2014an LABeko ordezkarietatik %34,41 ziren emakumeak eta epealdi trinko honetan igoera 2,3 puntukoa izan da. Hala, LABen ordezkarien %36,71 emakumeak dira egun. Erronka da Hego Euskal Herrian %40 ra iristea, Nafarroan jada lortu dugun moduan.


Emakumeen presentzia LABeko ordezkarien artean 2014-2018 (%)



41.083 afiliaturekin LABeko komunitatea zabaltzen, inoiz baino gehiago

2018ko itxiera datuen arabera, 41.889 afiliatu ditu LABek, eta beraz, afiliazioan ere inoizko daturik onena lortu dugu

LABeko afiliatuen bilakaera 2014-2018




Sindikalismo abertzalea, Hego Euskal Herriko langileen apustua

1994-2018 artean Hego Euskal Herriko lau sindikatu nagusiek izaniko garapena aztertuta, LAB-ELAren sindikalismo abertzaleak EAEn %55,03ko ordezkartza zuen 1994an eta %60,14koa du 2018an. CCOO-UGTren kontzertazioko sindikalismo eredua, berriz, %33,43ko ordezkartza izatetik 1994an, %29,26koa izatera pasatu da 2018an.

Ordezkaritzaren bilakaera EAEn 1994-2018 (%)


	LAB-ELA	CCOO-UGT	BESTEAK
1994	55,03	33,43	11,54
1998	55,82	33,34	10,83
2002	57,63	33,23	10,13
2006	57,45	32,9	9,65
2010	56,58	33,04	10,38
2014	58,22	30,92	10,86
2018	60,14	29,26	10,6
2014-2018 aldea	1,92	-1,66	-0,26
1994-2018 aldea	5,11	-4,17	-0,94



Nafarroan ere CCOO-UGT sindikatuen kontzertazioko sindikalismo ereduaren beharrezko joera erakusten dute datuek: 1994an CCOO-UGTren artean %55,37 egiten zuten eta 2018an %49,21. LAB-ELA sindikatuon batuketara %27,93koa zen 94an eta %38,93koa 2018an.

Ordezkaritzaren bilakaera Nafarroan 1994-2018 (%)


	UGT-CCOO	LAB-ELA	BESTEAK
1994	55,37	27,93	16,69
1998	53,23	32,83	13,93
2002	56,02	32,30	11,67
2006	55,25	33,76	10,99
2010	55,95	33,65	10,40
2014	52,34	35,25	12,42
2018	49,21	38,93	11,86
2014-2018 aldea	-6,16	10,99	
1994-2018 aldea	-3,13	3,68	



Hego Euskal Herria osotasunean hartuta joera berbera da: 1994an %48,94ko ordezkari-tza genuen LAB-ELAren sindikalismo abertzaleak eta %38,37koa CCOO-UGT. 24 urte geroago LAB-ELAk dugu %54,64 eta CCOO-UGTk %34,44.

Ordezkaritzaren bilakaera Hego Euskal Herrian 1994-2018 (%)

	LAB-ELA	CCOO-UGT	BESTEAK
1994	48,94	38,37	12,69
1998	50,80	37,69	11,51
2002	51,48	38,77	9,75
2006	51,64	38,38	9,98
2010	50,85	38,76	10,38
2014	52,20	36,52	11,27
2018	54,64	34,44	10,93
2014-2018 aldea	2,43	-2,09	-0,35
1994-2018 aldea	5,70	-3,94	-1,76



CCOO eta UGTk behera egiten jarraitzen duten bitartean, azken 24 urteetan sindikalismoa abertzalea 5,70 puntu igo da Hego Euskal Herrian.

Ondorioak

Langileen babesa eta indarra langile gisa ditugun erronka laboral, sozial eta politikoen mesedetan jarriko du LABek

Euskal Herriko langileek sindikalismo jakin baten aldeko apustua egiten dute, geroz eta gehiago: prekarizazio prozesuari aurre egingo dion sindikalismo abertzalea. Eta, ondorioz, tartea geroz eta handiagoa da kontrabotere sindikalismoaren eta kontzertazio sindikalismoaren artean. Arrakala horretan guztiz erabakigarria izaten da LABen gorazko bilakaera.

Euskal Herriko langileek beren bozkarekin mandatu argia eman digute: ez dute kontzertazio sindikalismorik nahi, ez dute sistemaren parte izan nahi, antolakuntza eta borroka sindikalaren alde egiten dute eta alternatiba hemen bertan kokatzen dute, esparru propioaren alde, marko propioaren alde eginez.

Hori oso aintzat hartze duen eskaintza sindikal sendoa du LABek, ikuspegi feminista txertatuta duen ekintza sindikal berri batekin; langile klasearen zatiketa eta indibidualizazioa gainditzeko ekimen eta eskaintza zehatzekin; mobilizazio sozialari eta han-hemenka irekitako borroka ezberdinei atxikirik, eskuz esku mugimendu feminista zein pentsiodunen borroken alde, gazteen, presoen borrokekin bat... eta lantokietako borrokekin bat.

Eraldaketa sozialaren aldeko borroka, horretarako ezinbestekoa den aldaketa politikoaren aldeko borrokarekin uztartuz, marko berri baten alde, lan harremanetako eta babes sozialeko esparru propioaren defentsan ari gara.



Hauteskunde prozesu honetatik indartuta aterako da LAB eta indar hori herri eta langile gisa ditugun erronka labora, sozial eta politikoen mesedetan baliatuko dugu, errealitate ezberdinen arteko indar metaketak bukitzatuz, eredu sozial eta ekonomiko berri baten alde, bizitza duinaren aldeko borrokan, eta borroka hori demokrazia eta burujabetza beharrekin uztartuz.

LABen hedapena eta indartzea langile gisa ditugun behar eta borrokan mesedetara jarriko dugu.